cara_b.pdf 1 18/12/12 13:17



Elexazar erromatar kokagunea
Asentamiento romano de Elexazar

Aspaltza mendiaren oinetan, ordeka zabal batean, erromatar garaiko aurkikuntza hau dago. Orain arte I. eta III. mendeen arteko hainbat elementu aurkitu dira bertan, metalurgiarekin eta inguruko baliabide mineralak, basokoak eta abeltzaintzakoak ustiatzearekin zerikusia zutenak. Zezen-buru bat irudikatzen duen aldare-harri bat aurkitu dute, eta baliteke Cibeles jainkosaren antzeko (naturaren eta ugalkortasunaren *Magna Materraren*) kultu edo erritu jakin baten ondorioz izatea.



Alejandro Severoren txanpona (227 K.o.)
Moneda Alejandro Severo (227 d.C.)



Taurobolio

En un amplio rellano bajo el monte Aspaltza se asienta este yacimiento de época romana, donde hasta el momento se han identificado diferentes elementos de los siglos I al III, quizá relacionados con la metalurgia y la explotación de recursos minerales, forestales y hasta ganaderos del entorno. La aparición de un ara con representación de una cabeza de toro puede responder a un determinado culto y ritual asimilable a la diosa Cibeles, la *Magna Mater* de la naturaleza y fertilidad.



Santiago eliza
Iglesia de Santiago

1 Amurrio

- Garaiera/Altitud: 227 m
- Azalera/Superficie: 264,74 Km²
- Biztanleak/Habitantes: 10.186



Urrutia jauregia (Ginea jauregia)
Palacio Urrutia (Palacio Ginea)

11 Larrinbe

- Garaiera/Altitud: 248 m
- Azalera/Superficie: 71,30 Km²
- Biztanleak/Habitantes: 288

Badakigu XIV. mendean hemen eliza bat zegoela, eta XV. mendean bandokideen arteko gatazka odoltsu baten lekuko izan zela. Alabaina, egungo tenpluaren fabrika XVI. mendekoa da, euskal gotikoaren amaierakoa, tertzelete gangaz eta motibo sinbolikoz apaindutako giltzarriekin estalia. Hiru ataleko dorrea ere XVI. mendekoa da, eta horrek gotorleku itxura ematen dio. Tenpluaren kanpoaldean mahaiak zeuden, kofradeen otorduetarako, eta baita aldare bat ere, ospakizunetan meza emateko.

Sabemos que existía ya una iglesia aquí en el s. XIV y que en el s. XV fue testigo de un violento episodio banderizo, sin embargo, la fábrica del actual templo es del siglo XVI, propia del gótico final vasco, cubierto con bóveda de terceletes y claves decoradas con motivos simbólicos. La torre de tres cuerpos es también del siglo XVI y confiere al conjunto un aspecto de fortaleza maciza. Al exterior del templo había mesas para las comidas de los cofrades y hasta un altar para celebrar misa en días de gran fiesta.

Garrastatxu santutegia
Santuario de Garrastatxu

Debozio handiko zentroa herritarrentzat. 1630 urte inguruan hasi ziren eraikitzen. Garai hartan abere-borda handi bat zeukan jabetzan, eta lagungarria zen. Borda hori eta bertatik ateratako produktuak salduz (argizaria eta artilea batez ere, baita ikatza eta bertako basoetako zurarekin) lortutako dinarekin etxezainek kudeatzen zituzten gastuei aurre egin zien. Santutegiaren parean plaza bat dago, harresiz inguratua. 1819an zezen-plaza zela jasotzen da, eta orduan 1.101 erreal gastatu zituzten toreatzaile, danbor-jotzaile eta bestelako ospakizunetan.

Centro de gran devoción popular que comienza a construirse en torno a 1630, momento en que disponía de una amplia cabaña ganadera de su propiedad que ayudaba, con el dinero de su venta y de los productos derivados como cera y lana, también del carbón y madera de sus bosques propios, a hacer frente a los gastos que sus mayordomos gestionaban. La plaza con muro de piedra frente al santuario se cita en 1819 como coso taurino, donde se gastaron 1.101 reales en toreros, tamborileros y otros festejos.

10 Baranbio

- Garaiera/Altitud: 274 m
- Azalera/Superficie: 108,04 Km²
- Biztanleak/Habitantes: 142



Bizkaiko errota
Molino Vizcaíno

2 Saratxo

- Garaiera/Altitud: 253 m
- Azalera/Superficie: 45,08 Km²
- Biztanleak/Habitantes: 97

Saratxo herrian 8 errota ere egon ziren garai batean. Errota asko dira, halako herri txikia izanik. Baina Urduñatik gertu egoteak erraztu egin zituen industria hori eta ostatu zerbitzua, bidaiariei eta taldeei zerbitzua emateko. Landaberde auzoan Bizkaiko errota baino ez dago zutik, baina 1983ko uholdeek bi gurpilak eraman zituzten. Ugarte maiorazkoaren jabetzakoa izan zen, baina XVIII. mende hasieran Luiaondon Aioko dorreko jaunaren jabetzakoa zela ageri zen.

Hasta ocho molinos llegó a tener el pueblo de Saratxo, algo inusual para una pequeña población. Pero su cercanía a la ciudad de Orduña propició este tipo de industria junto al servicio de hospedería para el servicio de viajeros y recuas. El molino Vizcaíno es el único que sobrevive en el barrio de Landaberde, aunque la riada de 1983 se llevó sus dos ruedas. Perteneció al mayorazgo de Ugarte y a comienzos del siglo XVIII figuraba como propiedad del señor de la torre de Aio, en Luiaondo.



Landako baserria
Caserío Landako

9 Lezama

- Garaiera/Altitud: 354 m
- Azalera/Superficie: 197,79 Km²
- Biztanleak/Habitantes: 272

LANDAKO BASERRIA

XVI. mende amaieran eraiki zuten, baina gerora sortutako beharren ondorioz, XVII. mende amaieran bi familiarentzako baserri bihurtu zen. Izan ere, garai horretan asko hedatu zen artoa. Zereal berri horrek hirukoiztu egin zuen nekazaritza unitate bakoitzaren gari ekoizpena eta baserrietan leku handiagoa behar zuen sabaian. Horrez gain, gizarte eta ekonomia krisiaren ondorioz, baserria eraldatu egin zuten, eta bi etxebizitzarentzako eremu bihurtu. Bi eskailera simetriko eraiki zituzten horretarako, bat bizilagun bakoitzarentzat.

CASERÍO LANDAKO

Se construye a finales del siglo XVI, pero las necesidades posteriores harán de él un caserío bifamiliar a finales del siglo XVII, coincidiendo con el desarrollo del maíz, el nuevo cereal que triplicaría las producciones de trigo por unidad agraria y precisaría de un mayor espacio en la bajocubierta de los caseríos. Además, la crisis social y económica llevó a reconvertir el caserío en un espacio para dos viviendas, para lo cual se crearon dos escaleras simétricas, una para cada vecino.

SAN MARTIN ELIZAKO LEIHO ERROMANIKOA

Elizatean dago, bere jatorrizko lekutik kanpo. XIII. mendeko elementua da, elizatea bera bezalaxe. Baoaren albo bakoitzean fuste leuneko hiru habe ditu, kalitate artistiko handiko kapitelez hornituak. Bi kapiteletan animalia haragijale bana ageri da, eta beste hirutan sare formako bolen motibo ezagüna, bola horiek lokarriz bereizita daudela. Azkenekoan hiru pertsonaia ageri dira: musikari bat, bizardun jauntxo bat eta burukoa kokospeko uhalarekin lotuta duen dama bat, elizako ugazabak irudikatzeko agian.

IRUARITZ BASERRIA

XVI. mendearen lehen erdiko baserri gotiko-errenazentista, 'bizkaitar erakoa', harresiz inguratutako zurezko egitura batekin. Aurrealdeak hiru hormarte ditu, eta erdikoak 'H' forma dauka. Pieza bakarreko habeak lurretik teilaturaino, habe horizontal edo ibiltarte batez elkartuak. Egitura indartzeko beso zeiharrak ditu, elementu bertikal eta horizontalak elkartzen dituztenak.

VENTANA ROMÁNICA DE LA IGLESIA DE SAN MARTÍN

Situado en el pórtico de la iglesia, fuera de su ubicación original, es un elemento del siglo XIII, al igual que la portada. Presenta tres columnas de fustes lisos a cada lado del vano, todas ellas rematadas en capiteles de gran calidad artística. En dos de ellos aparece un animal carnicero, y en otros tres el conocido motivo de bolas reticuladas y separadas por cordones. En el último, tres personajes: un músico, un noble con barba y una dama con tocado de barbuquejo, quizá representando a los patronos de la iglesia.

CASERÍO IRUARITZ

Caserío gótico-renacentista de la primera mitad del siglo XVI, del llamado 'tipo vizcaino', con una estructura de madera portante rodeada de muros. Su frente presenta tres crujías, de las cuales, la central tiene forma de 'H' resuelta mediante postes enterizos, desde el suelo hasta el tejado, unidos por una viga horizontal o carrera. La estructura se consolida con la utilización de tornapuntas oblicuas, que unen los elementos verticales y horizontales.

3 Lekamaña

- Garaiera/Altitud: 422 m
- Azalera/Superficie: 16,48 Km²
- Biztanleak/Habitantes: 39

San Migel eliza
Iglesia de San Miguel

1921ean inauguratu zuten tenplu hau. Ez dauka interes artistiko handirik, baina ez dakigu aurrekoak nolakoak ziren, gutxienez XVI. mendetik jasota daudenak. Badakigu oso baliabide gutxi zeuzkala. Ez zeukan tenpluaren barnealdea argitzeko modurik ere, neurri batean Lekamañan oso bizilagun gutxi zeudelako.

Se trata de un templo inaugurado en 1921 y carente de interés artístico, pero desconocemos cómo eran los anteriores, que sí se documentan al menos desde el siglo XVI. Si sabemos que era muy pobre en recursos, hasta el punto de no tener ni para el alumbrado del interior del templo, en parte por el escaso vecindario de Lekamaña.



San Martin eliza
Iglesia de San Martín

Iruaritz baserria
Caserío Iruaritz

4 Aloria

- Garaiera/Altitud: 385 m
- Azalera/Superficie: 24,94 Km²
- Biztanleak/Habitantes: 24

Aloriak herrigunetik urrun, *"legoa laurdenera"* zeukan San Juan de Abajo eliza, erromatar garaiko kokagune batean. Baina San Faustoren omenezko ermita bat ere bazuen, herrigunetik gertuago, eta hura erabili zuten parrokia gisa. Elizbarrutiko bisitariak ez zuen gustuko bi tenplu izatea, eta 1883an beste bat eraiki zuten. San Fausto herriko hilerri bihurtu zen orduan, eta San Juan de Abajo ermita. Azken hau 1818ra arte egon zen zutik gutxienez.

Aloria tenía su iglesia parroquial de San Juan de Abajo distante *"un quarto de legua"* de la población, precisamente sobre un asentamiento de época romana. Pero también tenía una ermita dedicada a San Fausto, más en el centro de la población, lo que dio lugar a que se utilizara como parroquia. Esta dualidad de templos no gustaba nada al visitador de la Diócesis y terminó por edificarse un tercero, en 1883, que convertiría a San Fausto en cementerio del pueblo, y a San Juan de Abajo en ermita, al menos en pie hasta 1818.

San Fausto ermita
Ermita de San Fausto

Artomañako dorrea
Casa-torre de Artomaña

8 Artomaña

- Garaiera/Altitud: 333 m
- Azalera/Superficie: 43,28 Km²
- Biztanleak/Habitantes: 63

Urduña eta Urkabustaiz arteko bidearen aldamenean, zubi batek elkarturiko bi dorrek zaintzen zuten bidea. Diego de Orue eta Mª Ortiz de Zarate ziren jabeak. Egun zutik dagoen dorreak hiru solairu zituen garai batean, eta antzinako goi-salan puntu erdiko leihoak ditu. XVI. mendearen lehen erdiko eraikina da, eta halako berant eraikinetan ohikoa denez, beheko eta goiko sarbideak aurrealde berean daude. Gainera, ez dago argi garai batean goiko sarrera bat zen edo egun desagertuta dagoen balkoi bateko atea.

Eran dos las torres que, unidas por un puente, guardaban el paso junto al camino entre Orduña y Urkabustaiz, pertenecientes a Diego de Orue y Mª Ortiz de Zarate. La que hoy vemos fue torre de tres pisos, y presenta ventanas de medio punto en lo que era la sala alta. El acceso bajo y el alto están ya en la misma fachada, propio de edificaciones tardías como ésta, de la primera mitad del s. XVI. Además, no está claro si se trataba de un acceso alto o de salida a una balconada que ya no existe.

6 Arrastaria

- Garaiera/Altitud: 350 m
- Azalera/Superficie: 259,08 Km²
- Biztanleak/Habitantes: 337

Red Natura 2000

Hala Gorobel mendilerroa, nola Arkamo-Gibijo-Arrastaria Babes Bereziko Eremuen Sarean sartu zituen Red Natura 2000 sareak 2003an. Sare hori europarra da eta balio ekologiko (BBE) handiko habitat natural eta erdi naturalak jasotzen ditu, baita Hegaztientzako Babes Bereziko Eremuak (HBBE) ere. Hain zuzen ere Europako bi agintaritza horiek izendatu zituzten Sareko eremu. Lehenengoa 3.883,7 hektareako eremua da, bigarrena, berriz, 11.648,9 hektareakoa. Bertan identifikatutako elementuak (basoa, zelai, larre, ur gezako eremu eta kobazuloak) oinari hartuta izendatu dira babes bereziko eremu. Bertako faunari dagokionez, hauek dira nagusi; hainbat saguzar mota, sai arrea, miru gorriak, sai zuriak eta bestelako hegaztiak, eta kakalardoetan arkanbeleak eta alpetar errosaliak.

Tanto Sierra Sálvada como Arkamo-Gibijo-Arrastaria, están incluidos desde el año 2003 en la Red de Espacios Protegidos por la Red Natura 2000. Dicha red es de ámbito europeo y esta integrada por hábitats naturales y seminaturales de alto valor ecológico (ZEC) y de zonas de especial protección para las aves (ZEPA) declaradas ambas por sendas directivas europeas. La primera tiene una superficie de 3883,7 ha y la segunda de 11648,9 ha. Ambas están declaradas con su categoría de protección en base a unos elementos de interés identificados en la zona como son los bosques autóctonos, prados, pastizales, áreas de agua dulce y cuevas. En cuanto a la fauna identificada más importante se citan; varios tipos de murciélagos, aves como el buitre leonado, el milano real y el alimoche, y en cuanto a escarabajos el ciervo volante y la rosalia alpina.

BBE / ZEC – Arkamo - Gibijo - Arrastaria
HBBE / ZEPA – Gorobel mendilerroa / Sierra Sálvada

Zaldibar etxea
Casa Zaldívar

5 Tertanga

- Garaiera/Altitud: 347 m
- Azalera/Superficie: 54,63 Km²
- Biztanleak/Habitantes: 83

1619an Tertangako jauregitik etorri eta Juan de Zaldibarrek Urduñako Santa Maria parrokian kapera erosi zuen. XVII. mendeko jauregi hori San Kristobal elizaren alboan dago egun. Bere harresiak antzinako sarbidearen gainean daude. Eremua harrizko gotorgune batez dago itxita. Izen handiko harlanduzko elementuak ditu, angeluetako lau kuboak eta baoetako moldura edo hegalak, eraikinaren soiltasuna hausten duteñak.

En 1619 se sabe de un Juan de Zaldibar, procedente de su palacio de Tertanga, que compraba capilla en la parroquia de Santa María de Orduña. Dicho palacio del s. XVII puede verse hoy junto a la iglesia de San Cristobal, alzando sus muros sobre el antiguo camino de acceso y cercado su recinto por una barbacana de piedra. Incorpora elementos de prestigio en sillería como son los cuatro cubos de sus ángulos y las molduras u orejeras de los vanos, que ayudan a romper la sobriedad del edificio.

Tertangako uraska
Abrevadero de Tertanga

Delikako dorrea
Torre de Delika

7 Delika

- Garaiera/Altitud: 335 m
- Azalera/Superficie: 136,23 Km²
- Biztanleak/Habitantes: 167

Litekeena da luiando zaratearrena izatea. Urduñatik Delikara joan eta han XVI. mendearen lehen hamarkadetan eraikiko zuten dorre hau. Elizari kapera propioa emango zioten gainera. XVI. mendeko euskal gotikoan eraikia. Eraikinak saeterak eta garitoiak ditu angeluetan. Dorreak babesleku funtzioa izan zuela dirudi, baina ez zen hala gertatu, egoitza baino ez zen izan. 1958an eraberritu zuten, baoak eta jatorrizko sarbideak ezkutatu, eta armarriak kendu zituzten.

Es muy probable que perteneciera a los Luyando Zarate, llegados de Orduña a Delika, donde en las primeras décadas del siglo XVI edificarían esta torre. Además dotarían a la iglesia de una capilla propia, edificada en gótico vasco del XVI. El edificio presenta saeteras y garitones en los ángulos, presumiéndole una función defensiva que nunca tuvo, más allá de las puramente residenciales. La reforma de 1958 terminó por ocultar vanos y accesos originales, además de hacer desaparecer los escudos de armas.